



Ontziratutako elikagaiak azken kontsumitzaileari ontzirik gabe ematen zaizkionak dira. Definizio honen barnean sartzen dira honako hauek ere:

- Azken kontsumitzaileak hala eskatuta, **erostean ontziratzen diren produktuak**
- **Tabernetan, kafetegietan eta jatetxeetan** zerbitzatzen diren elikagaiak
- **Kolektibitateei ontziratutako gabe ematen** zaizkien elikagaiak
- **Azken kontsumitzaileari ontziratutako gabe saltzen zaizkionak**

(EB) 1169/2011 Araudia (<http://www.boe.es/doue/2011/304/L00018-00063.pdf>)k, **ontziratutako gabe elikagai GUZTIEK alergiak sortu ditzaketan sustantziak aipatu behar dituzte.**

Aipatu beharreko alergenoen zerrenda (http://etiketatzea-dev.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2017/12/5.1.listado-de-al%C3%A9rgenos-a-declarar_eusk.pdf)

Bestalde, 44. artikuluan, aukera ematen die Estatu kideei neurri nazionalak ezartzeko, ontziratutako gabe aurkezten diren elikagaien kasuan, aipamenak aurkezteko erabil daitezkeen neurriak arautze aldera.

2015eko otsailean 126/2015 Errege Dekretua (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-2293-consolidado.pdf>) argitaratu zen. Honen bidez **onetsi zen azken kontsumitzaileari ontziratutako gabe saltzen zaizkien elikagaien inguruko informazioari buruzko arau orokorra**. Alergenikoak diren sustantzien aipamenaren gain, hurrengokoa ere aipatu behar da:

Ontziratutako gabe ematen diren edo kontsumitzaileak hala eskatuta saltokian ontziratzen diren gainerako elikagaiak

- Elikagaiaren **izendapena**.
- **Osagai** bakoitzaren edo osagai-kategoria bakoitzaren **kopurua**
- **% 1,2ko graduazioa baino graduazio handiago** duten edari alkoholduen **alkohol-maila**.
- Salmenta - modalitate honetarako elikagaien araudietan ezartzen diren beste baldintza batzuk.

Txikizkako saltokien titularrek establezimenduan berehala saltzeko ontziratutako elikagaien kasuan

- Elikagaiaren **izendapena**.
- Osagaien **zerrenda**.
- **Osagai** bakoitzaren edo osagai-kategoria bakoitzaren **kopurua**.
- Elikagaien **eduki osoa**.
- **Gutxieneko iraupenaren eguna** edo iraungitze-data.
- **Kontserbatzeko baldintza bereziak** eta/edo erabiltzeko baldintzak.
- Ontziratzailearen **izena edo izen soziala eta helbidea**.
- **Jatorriko herrialdea** hala aurreikusten denean.
- **Erabiltzeko modua**, informazio hori agertu ezean, elikagaia ondo erabiltzea gaitza den kasuetan.
- **% 1,2ko alkohol-bolumena baino gehiago** duten edarrietan, hartutako **alkohol bolumetrikoaren maila**

zehaztuko da.

DERRIGORREZKO INFORMAZIOA NOLA ADIERAZI

Informazioa **ontzian edo ontziari lotutako etiketa batean jarri** behar da.

Nolanahi ere den, **produktua saltzaileak saltzen duenean**, gutxieneko iraupen-data edo iraungitze-data izan ezik, gainerako datuak elikagaiak **saltzeko aurkezten diren lekuan jarri ahal izango dira karteletan**.

Autozerbitzuaren araubidean, 126/2015 Errege Dekretuaren 5.2 artikuluan zerrendatutako produktuentzat poltsetan edo produktua begi hutsez identifikatzeko aukera ematen duten beste ontzi batuetan ontziratzen diren produktuetan, eta frutak, barazkiak, tuberkuluak eta fruitu lehorrak dituztenetan, **salmenta-izendapena saltzeko aurkezten diren lekuan jarri ahal izango dira karteletan, elikagaiaren ondoan**.

Berezi@: Ontziratatu gabeko elikagaien etiketatzea - ELIKA (2015) (https://etiquetado.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2018/01/berezi_ontziratatu-gabeko-elikagaiak_2015.pdf)

Guía sobre la información de los alimentos en comercio minorista y restauración - Departamento de Salud del Gobierno Vasco (2015) (<https://etiquetado.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2018/01/Guía-sobre-la-información-de-los-alimentos-en-comercio-minorista-y-restauración.pdf>)

Guía de aplicación de las exigencias de información alimentaria de los alimentos que se presenten sin envasar para la venta al consumidor final y a las colectividades, de los envasados en los lugares de venta a petición del comprador y de los envasados por los titulares del comercio al por menor - AECOSAN (2015)

(http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/seguridad_alimentaria/gestion_riesgos/guia_aplicacion_info)
ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)